

ENPRESEN konfiantza

2020-KO 1. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2020-KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2020ko lehenengo hiruhilekorako** dituzten igurikimenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekotik beherakada nabarmena sumatu baita. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei dagokienez, % 54,2k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 4,6k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, aurreko hiruhilekoan baino ezkorragoa da ikuspegia.




1 | FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioaren harira dituzten aurreikuspenek okerrera egin dute **2020ko lehenengo hiruhilekoari** begira: % 52,4ren ustez, mantendu egingo da eta % 22ren ustez, hobera egingo du. Enpresen % 25,6k uste du fakturazioa txarragoa izango dela.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta **2020ko lehen hiruhilekoan** espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 57,2k uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 10,4k hobera egingo duela. Alabaina, % 32,4k uste du jarduerak txarrera egingo duela, eta **ehuneko hori aurreko hiruhilekoan baino nabarmen handiagoa da.**




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute saldutako kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Emaitzek diote eskabide-mailak okerrera egingo duela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 54,9k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 19k hobera egingo duela. Enpresen % 26,1ek, ordea, eskabideen bolumenak behera egingo duela uste du.




4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, emaitzek okerrera egin dute: inkesta egin dutenen % 74,4k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **lehen hiruhilekoan**. Gainerako enpresen artean, % 9,4k erantzun du prezioak igo egingo direla eta % 16,2k behera egingo dutela.



5 ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNAREN inguruko aurreikuspenei dagokienez, inkestari erantzun dioten % 64,3k «berdin» jarraituko duela uste du, enpresen % 12,9ren iritziz, handiagoa izango da, eta % 22,8k, azkenik, etekin txikiagoak espero ditu.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuen arabera, egoera **aurreko hiruhilekoan** baino txarragoa da. Eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ez dutela asmorik ahalmen produktiboari eusteko eta, azken finean, langileen kopurua handitzeko.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 67,1ek uste du eutsi egingo diotela **2020ko lehen hiruhilekoan**. % 14,4k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 18,5ak uste du behera egingo duela.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 78,7k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 10,9k langile-taldea handitzeko itzaropena du eta % 10,4k guztiz kontrakoa, plantilla murriztu egingo duela.




2020-KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **46,2ko** konfiantza-indizea lortuko dugu. Beraz, aurreko hiruhilekoko **52ko** indizearekin alderatuta, beherakada nabarmena izan da. Interpretazioa hauxe da: enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2020ko lehenengo hiruhilekoari** begira. Indizearen balioa 50etik behera dagoenez, uzkurdura-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, 46,8ko datua lortu zen urrian, eta Eurogunean 45,9koa hilabete berean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko ESPORTAZIOEN bilakaerari dagokionez, inkestaren % 51,2k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 29,8k hobera egin duela. % 19ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 77,1 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 8,5ek salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 81,2rentzat, BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAN ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 13,4ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5,4k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestauen % 79,4k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 13,1ek dio hobetu egin dela, eta % 7,5ek lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2020-AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Hurrengo irudian ikus daitezke aztertutako azken bi hiruhilekoetako adierazle partzialen eta aurreikuspen orokorraren balioak.

Enpresen aurreikuspenak



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
